



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasua.net

alsasua@alsasua.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

ALTSASUN ATARIPEEN ERAIKUNTZA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA (NAO 75 zbk, 2006ko ekainak 23)

Altsasun eraiki (edo legeztatu) gogo diren ataripeek, lurzatiko eraikigarritasuna ahitua badago ere, ondotik ematen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte:

- Bizitegietarako hiri lurzoruan dauden lurzatietan baizik ez dira eraiki ahal izanen
- Beheko solairuan edo terrazetan eraiki ahal izanen dira, betiere gainerako baldintzak betetzen badituzte Orobat, patio itxietako lehen solairuan eraiki ahal izanen dira
- Eraikin nagusiari itsatsirik eraikiko dira eta haien luze-zabalak hauek izanen dira gehienez:
 - Garaiera gailurreraino: 3,5 metro
 - Luzera: erantsirik doan fatxadarena
 - Sakonera: 3,0 metro (estalkiaren proiektzioa solairuan)
 - Estalkiaren malda: %30-40
- Eraikuntzarako erabili beharreko materialak hauek dira:
 - Egituran: zura edo obra fatxadan erabili bezalako materialaz jantzia
 - Estalkian: teila zeramikoa
- Ataripeak irekiak izanen dira; ez dira ixten ahalko inolako sistema edo material erabilirik ere
- Gutxienez ere 3,0 metroko tarte librea utzi beharko da (ataripearen luzerarekiko perpendikularra) lurzatiaren, eraikinaren edo terrazaren mugaraino

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Ataripea eraiki aurretik, Udalaren obra lizentzia eskatu beharko da eta ondoko dokumentazioa erantsiko zaio eskariari:

- Ataripea lurzatian edo terrazan kokatzeko krokisa
- Eraiki gogo den ataripearen krokisa, haren luze-zabalak zehaztuta
- Aurrekontu xehekatua
- Lurzati zedula eguneratua
- Bizilagun elkartearen baimena
- Teknikari eskudunek sinaturiko ziurtagiria, erabileraren gainkargen kalkulua egiaztatuko duena eraikuntzari buruzko AE-88 oinarritzko arauaren arabera